## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 5690

373/2005 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, kendu eta aldatzeari buruzko eta sail horien eginkizunak eta jarduera-arloak zehazteari buruzko ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailen egitura berrantolatu da, bai eta sailean saileko eskumenen esleipen berria ezarri ere.

Ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 11. artikuluak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sail berriari dagozkion eginkizunak eta jarduera-arloak biltzen ditu.

Aipatutako arauaren azken xedapenen arteko lehenean aurreikusitakoa betez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura eta eginkizunak ezartzen ditu dekretu honek, aipatutako xedapenetan adierazitako aurreikuspenei eta antolaketa-irizpideei jarraituz.

Egitura hori honako hiru sailburuordetza hauetan antolatzen da: Etxebizitza Sailburuordetza, Gizarte Gaietako Sailburuordetza, eta Herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetza; sailburuordetza horiek, bestalde, zuzendaritzak izango dituzte, bakoitzari dagozkion arlo bereziak kontutan hartuta. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa Zerbitzu Zuzendaritzarekin osatzen da; horrek organo horizontal baten antzera jardungo du, sailburuaren mendean.

Etxebizitza Sailburuordetzaren helburu nagusia sailaren eskumenak gauzatzea da, honako hauei dagokienez: lurzorua eta hirigintza, etxebizitza, arkitektura, plangintza, herritarrei laguntzea eta etxebizitzari dagozkion laguntzak kudeatzea, eta eraikuntzaren eta eraikuntzaren kalitatearen berrikuntza sustatzea.

Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren zeregin nagusia hainbat jarduera planifikatzea eta koordinatzea da, honako arlo hauetan: garapen-lankidetza, gizarte-ongizatea, gizarte-zerbitzuak, boluntariotza, immigrazioa, droga mendekotasunak, eta Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoarekiko harremanak.

Azkenik, Herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetzari honako zeregin nagusi hauek agindu zaizkio: batetik, gizartearen eta herritarren partaidetza bultzatzea, lurzoruaren, hirigintzaren, etxebizitzaren eta gizarte-gaien arloetako politikak planifikatu eta gauzatzeari dagokionez, bai eta ar-

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 5690

DECRETO 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

En virtud del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se ha procedido a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma y a la nueva asignación competencial entre los Departamentos de la misma.

El artículo 11 del Decreto 8/2005, de 27 de junio, contempla las funciones y áreas de actuación que corresponden al nuevo Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

De conformidad con lo previsto en la Disposición Final Primera de la mencionada norma, el presente Decreto establece la estructura y funciones del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, siguiendo las previsiones y criterios organizativos señalados en las referidas disposiciones.

Dicha estructura se articula en 3 Viceconsejerías, de Vivienda, de Asuntos Sociales y de Participación Ciudadana y Relaciones Institucionales, las cuales a su vez se estructuran en Direcciones en función de cada una de las materias específicas. La estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales se completa con la Dirección de Servicios, que actuará como órgano horizontal, directamente dependiente del/la Consejero/a.

La Viceconsejería de Vivienda tiene por objeto fundamental el ejercicio de las competencias departamentales relativas a suelo y urbanismo, vivienda, arquitectura, planificación, atención a la ciudadanía y gestión de ayudas relativas a vivienda y el fomento de la innovación en la edificación y calidad de la construcción.

La Viceconsejería de Asuntos Sociales tiene encomendadas como tareas principales la planificación y coordinación de las actuaciones en el campo de la cooperación al desarrollo, bienestar social, servicios sociales, voluntariado, inmigración, drogodependencias, así como las relaciones con la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia.

Y por último, la Viceconsejería de Participación Ciudadana y Relaciones Institucionales tiene encomendadas como tareas principales el impulso de la participación social y ciudadana en la planificación y ejecución de las políticas en materia de suelo, urbanismo, vivienda y asuntos sociales y en el ejercicio de las competen-

lo horietako eskumenak gauzatzeari dagokionez ere; eta, bestetik, Sailari laguntza eta aholku ematea, instituzioen arteko komunikazioari eta harremanei dagokienez.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko azaroaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ANTOLAMENDU OROKORRA

*1. artikulua.–* Eginkizunak, eskumenak eta jarduera-arloak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzeari buruzko eta sail horien eginkizunak eta jarduera-arloak zehazteari buruzko Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 11. artikuluan zehaztu diren eginkizunak eta jarduera-arloak dagozkio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari.

*2. artikulua.–* Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura.

Aurreko artikuluan aipatu diren eskumenak baliatzeko, honako organo hauek izango ditu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak:

A) Organo Nagusiak:

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

2.– Zerbitzu Zuzendaritza.

3.– Etxebizitza Sailburuordetza.

a) Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza.
b) Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.
c) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen. Zuzendaritza.

4.– Gizarte Gaietako Sailburuordetza:

a) Gizarte Ongizate Zuzendaritza.
b) Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza.
c) Inmigrazio Zuzendaritza.
d) Droga Gaietako Zuzendaritza.

5.– Herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetza.

a) Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza.
b) Kabinetearen Zuzendaritza.

B) Organo periferikoak:

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Lurralde Historiko bakoitzean duen Lurralde Ordezkaritza.

cias en dichas materias, así como el apoyo y asesoría al Departamento en lo que a comunicación y relaciones interinstitucionales respecta.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 15 de noviembre de 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
ORGANIZACIÓN GENERAL

*Artículo 1.–* Funciones, competencias y áreas de actuación.

Al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales le corresponden las funciones y áreas de actuación que se determinan en el artículo 11 del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

*Artículo 2.–* Estructura del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Para el ejercicio de las competencias a que se refiere el artículo anterior, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales se estructura en los siguientes órganos:

A) Órganos Centrales:

1.– Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– Dirección de Servicios.

3.– Viceconsejería de Vivienda.

a) Dirección de Suelo y Urbanismo.
b) Dirección de Vivienda, Innovación y Control.

c) Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda.

4.– Viceconsejería de Asuntos Sociales:

a) Dirección de Bienestar Social.
b) Dirección de Cooperación al Desarrollo.
c) Dirección de Inmigración.
d) Dirección de Drogodependencias.

5.– Viceconsejería de Participación Ciudadana y Relaciones Institucionales.

a) Dirección de Participación Ciudadana.
b) Dirección del Gabinete.

B) Órganos Periféricos:

Las Delegaciones Territoriales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales de cada uno de los Territorios Históricos.

C) Jarraian azaltzen diren organoak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari esleitu eta/edo lotu zaizkio, beren eraketa-arauetan ezarritakoaren arabera:

1.– Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Batzordea, urriaren 22ko 238/1996 Dekretuaren bidez sortua.

2.– Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, abenduaren 4ko 20/1997 Legearen bidez sortua.

3.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak, azaroaren 20ko 8/1987 Legeak sortuak, eta Euskadiko Balorazio Batzorde Teknikoa.

4.– Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea, martxoaren 24ko 53/1998 Dekretuak arautua.

5.– Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea, martxoaren 30eko 62/2004 Dekretuak arautua.

6.– Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak sortua eta otsailaren 16ko 30/2003 Dekretuak arautua.

7.– Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren osatzeari eta funtzionamendu-erregimenari buruzko irailaren 16ko 204/1997 Dekretuak arautua; azaroaren 3ko 298/1998 Dekretuak aldatu du Dekretu hori.

8.– Nazioarteko Adopzioko Batzorde Teknikoa, urriaren 28ko 263/2003 Dekretuan arautua, Nazioarteko Adopzioko Erakunde Laguntzaileen egiaztatzea eta funtzionamendua arautzen dituena.

9.– Droga Mendekotasunen Aholku Kontseilua, Droga Mendekotasunen arloan prebenitzeari, laguntzeari eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak sortua, eta gailu instituzionala garatzen duen uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuak arautua.

10.– Droga Mendekotasunen Sailen Arteko Batzordea, Droga Mendekotasunen arloan prebenitzeari, laguntzeari eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak sortua, eta gailu instituzionala garatzen duen uztailaren 27ko 302/1999 Dekretuak arautua.

11.– Ijitoen sustapen integralerako eta gizarte-parte-hartzerako Kontseilua, abenduaren 5eko 289/2003 Dekretuak arautua, Euskadiko Ijitoen sustapen integralerako Kontseilua sortzen duena.

12.– Haur eta Nerabeen Behatokia, haur eta nerabeen arreta eta babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak arautua.

13.– Euskadiko immigranteen Gizarteratzeko eta Gizarte Parte-hartzerako Foroa, azaroaren 9ko 213/2004 Dekretuak aldatutako abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuak arautua.

C) Están adscritos y/o vinculados al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en los términos que establecen sus normas de creación, los siguientes órganos:

1.– Comisión para el Control de Calidad de la Edificación, constituida por el Decreto 238/1996, de 22 de octubre.

2.– Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad, creado por la Ley 20/1997, de 4 de diciembre.

3.– Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, creados por la Ley 8/1987, de 20 de noviembre, y la Comisión Técnica de Valoración de Euskadi.

4.– Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi, regulado por el Decreto 53/1998, de 24 de marzo.

5.– Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo, regulada por el Decreto 62/2004, de 30 de marzo.

6.– Consejo Vasco del Voluntariado, creado por la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado y regulado por el Decreto 30/2003, de 16 de febrero.

7.– Consejo Vasco de Bienestar Social, regulado en el Decreto 204/1997, de 16 de septiembre, de composición y régimen de funcionamiento del Consejo Vasco de Bienestar Social, modificado por el Decreto 298/1998, de 3 de noviembre.

8.– Comisión Técnica de Adopción Internacional, regulada en el Decreto 263/2003, de 28 de octubre, por le que se regula la acreditación y el funcionamiento de las Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional.

9.– Consejo Asesor de Drogodependencias, creado por la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de Drogodependencias y regulado por el Decreto 302/1999, de 27 de julio, por el que se desarrolla el dispositivo institucional.

10.– Comisión Interdepartamental de Drogodependencias, creada por la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de Drogodependencias y regulado por el Decreto 302/1999, de 27 de julio, por el que se desarrolla el dispositivo institucional.

11.– Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano, regulado por el Decreto 289/2003, de 5 de diciembre, por el que se crea el Consejo para la promoción integral del Pueblo Gitano en el País Vasco.

12.– Observatorio de la Infancia y la Adolescencia regulado por la Ley 3/2005, de 18 de febrero, sobre atención y protección a la infancia y a la adolescencia.

13.– Foro para la Integración y Participación Social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes en el País Vasco, regulado por el Decreto 200/2002, de 30 de agosto, modificado por el Decreto 213/2004, de 9 de noviembre.

*3. artikulua.–* Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoa.

Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta horren antolaketa- eta funtzionamendu-arautegian ezarritakoaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari esleitu zaio Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa. Alabaina, bulego horrek askatasun eta autonomia osoa izango du bere eginkizunak gauzatzeko, Administraziotik aparte.

*4. artikulua.–* Administrazio Instituzionala.

Orobat, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA) sozietate publikoa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari esleitu zaio, Etxebizitza Sailburuordetzaren bitartez.

## II. KAPITULUA
## SAILBURUA ETA SAILEKO GOI KARGUDUNAK

### 1. ATALA
### ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILBURUARI DAGOKIONEZ

*5. artikulua.–* Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari honako hauek dagozkio:

a) Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak gauzatzea, bai eta Sailak onartutako eginkizun eta jarduera-arloen esparruan indarreko legeriak esleituko dizkion eskumenak gauzatzea ere.

b) Saileko Kontratazio Organo gisa jardutea, 100.000 euro baino gehiagoko espedienteetan.

c) Saileko 1.500.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, Gobernu Kontseiluaren eskumenak bazter utzi gabe. Nahitaezko desjabetzetan, 150.000 eurotik gorako gastuak baimentzea.

d) Enpresa, erakunde eta korporazioekin akordioak edo hitzarmenak egitea. Zehazkiago, etxebizitzari dagokionez, lankidetza-hitzarmenak izenpetuko ditu Tokiko Korporazioekin eta zuzenbide publikoko erakundeekin. Orobat, interes publikoko jarduera ekonomiko pribatuak sustatu nahi dituzten partikularrekin laguntza-hitzarmenak izenpetuko ditu, Gobernu Kontseiluak horretarako baimena eman ondoren, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekarpen ekonomikoa 60.000 eurotik gorakoa bada, Gobernu Kontseiluaren eskumenak bazter utzi gabe.

e) Sailburuek eta Zerbitzu Zuzendariak emandako ebazpenen aurka jarritako helegiteak ebaztea.

*Artículo 3.–* Defensoría para la Infancia y la Adolescencia.

En los términos establecidos por la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, y su reglamento de organización y funcionamiento, se adscribe al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, sin integrarse en el mismo, la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia, que ejerce sus funciones con plena autonomía respecto a la Administración.

*Artículo 4.–* Administración Institucional.

Asimismo, se adscribe al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, a través de la Viceconsejería de Vivienda, la sociedad pública Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA).

## CAPÍTULO II
## EL CONSEJERO Y ALTOS CARGOS DEL DEPARTAMENTO

### SECCIÓN 1.ª
### DEL CONSEJERO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

*Artículo 5.–* Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

1.– Corresponde al Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales:

a) El ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación asumidas por el Departamento.

b) Actuar como Órgano de Contratación del Departamento en los expedientes de cuantía superior a 100.000 euros.

c) La autorización de los gastos del Departamento de cuantía superior a 1.500.000 euros, sin perjuicio de las competencias del Consejo de Gobierno. La autorización de gastos en las expropiaciones forzosas de cuantía superior a 150.000 euros.

d) La formalización de acuerdos o convenios con empresas, entidades y corporaciones. En particular en materia de vivienda, suscribir convenios de cooperación con Corporaciones Locales y entes de derecho público y convenios de colaboración, previa autorización del Consejo de Gobierno, con particulares que tengan por objeto fomentar la realización de actividades económicas privadas, de interés público, cuando la aportación económica de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco exceda de 60.000 euros, a salvo las competencias del Consejo de Gobierno.

e) La resolución de los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por los Viceconsejeros o Viceconsejeras y por el Director o la Directora de Servicios.

f) Esleipen prozedura orokorraren eraginpeko babes ofizialeko etxebizitzen esleipena kentzeko deklarazioa egitea.

g) Etxebizitzak eskuratzea sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitza gisa sailkatzeko, ondarearen gaineko indarreko legeria bazter utzi gabe.

h) Babes ofizialeko gehienezko prezioak ezartzea eta zehaztea.

i) Babes ofizialeko etxebizitzen salerosketa- eta alokairu-kontratuetan nahitaez bildu beharreko klausulak ezartzea.

j) Babes ofizialeko etxebizitzen hasierako gehienezko errenta finkatzea eta zehaztea.

k) Etxebizitzari buruzko zigor-espedienteetan behartzeko isunak ezartzea, baldin eta zenbatekoa 12.000tik 30.000 eurora bitartekoa bada.

l) Interesdunaren eskaerari erantzunez, zigor-espedienteetan ezarritako isunak partzialki barkatzea, baldin eta obrak epearen edo luzapenaren barruan egin badira, Gobernu Kontseiluak ezarritako isunak izan ezik (azken kasu horretan, Gobernu Kontseiluari dagokio isunak barkatzea).

2.– Aholkulariek eta sailburuak izendatutako konfiantzazko gainerako langileek beharrezko laguntza emango diote Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, bere goreneko zuzendaritzapean, sailburuak bere eginkizunak behar bezala bete ditzan.

3.– Saileko organoek beharrezko informazioa eta laguntza jarriko dute une oro horrelakorik beharko duten Aholkulari eta konfiantzazko gainerako langileen esku, aginduko zaizkien eginkizunak behar bezala gara ditzaten.

4.– Sailburua buru dela, Zuzendaritza Kontseilu bat ere izango da, Sailaren politika antolatzen laguntzeko. Honako hauek osatuko dute Kontseilua: sailburuordeek, zuzendariek, aholkulariek, eta sailburuak aztertu beharreko gaien arabera izendatuko dituen lagunek.

5.– Hierarkiaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren mendeko zuzena da Zerbitzu Zuzendaritza; Sailaren organo horizontal gisa eratu da zuzendaritza hori.

## 2. ATALA
## SAILEKO SAILBURUEI DAGOKIENEZ

***6. artikulua.***– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko sailburuordeak.

Sailburu titularraren zuzeneko ardura hierarkikoaren eraginpean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko sailburuordeei, oro har, honako eskumen hauek gauzatzea dagokie:

f) La declaración de exclusión de la adjudicación de viviendas de protección oficial sujetas al procedimiento general de adjudicación.

g) La adquisición de viviendas para su calificación como viviendas de protección oficial de promoción pública, a salvo la legislación vigente en materia de patrimonio.

h) La fijación y determinación de los precios máximos de las viviendas de protección oficial.

i) El establecimiento de cláusulas de inclusión obligatoria en los contratos de compraventa y arrendamiento de las viviendas de protección oficial.

j) La fijación y determinación de la renta máxima inicial de las viviendas de protección oficial.

k) La imposición de multas coercitivas en expedientes sancionadores en materia de vivienda cuando la cuantía sea superior a 12.000 euros e inferior a 30.000 euros.

l) La condonación parcial a solicitud del interesado de las multas impuestas en expedientes sancionadores cuando se hayan realizado las obras dentro de plazo o de la prórroga, salvo las impuestas por Consejo de Gobierno a quien, en cuyo caso, corresponderá la condonación.

2.– Para el correcto ejercicio de sus funciones y bajo su superior dirección, el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales estará asistido por los Asesores o Asesoras y demás personal de confianza por él designados.

3.– Para el correcto desarrollo de las funciones que les sean encomendadas, los órganos del Departamento prestarán a as Asesoras y Asesores y demás personal de confianza la información y el apoyo que en cada caso necesiten.

4.– Presidido por el Consejero, existirá un Consejo de Dirección que le asistirá en la elaboración de la política del Departamento. Formarán parte de este Consejo, los Viceconsejeros o Viceconsejeras, Directores o Directoras, Asesoras o Asesores y aquellas personas que determine el Consejero en función de los asuntos a tratar.

5.– Del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales depende directa y jerárquicamente la Dirección de Servicios, que se constituye como órgano horizontal del Departamento.

## SECCIÓN 2.ª
## DE LOS VICECONSEJEROS O VICECONSEJERAS DEL DEPARTAMENTO

***Artículo 6.***– Viceconsejeros o Viceconsejeras del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

A las Viceconsejeras o Viceconsejeros del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero titular del Departamento les corresponde, con carácter general, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Sailburuak eskuordetuta, Saila ordezkatzea.

b) Sailburuordetzaren eta horren eraginpeko organoen jarduerak programatzea, zuzentzea, koordinatzea, bultzatzea eta ikuskatzea.

c) Sailburuari Sailburuordetzaren araudia eta jarduera-planak proposatzea.

d) Sailburuordetzak izapidetu beharreko eta sailburuordearen eskumenekoak diren gaiei dagokienez egokitzat joko dituen ebazpenak sailburuari proposatzea, eta haren eskumeneko gaiei buruzko erabakiak hartzea.

e) Sailburuordetzaren mendeko zerbitzuei argibide eta zerbitzu-agindu egokiak ematea, zerbitzu horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

f) Sailburuordetzaren mendeko zerbitzuen proiektuak proposatzea, baliabide materialen eta giza baliabideen beharrak zehaztuz, Aurrekontu Aurreproiektua lantzeko.

g) Sailburuordetzaren zuzendariek emandako ebazpenen aurka jarritako helegiteak ebaztea.

h) Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritza-zentroen eta erakundeen funtzionamendua ikuskatu eta kontrolatzea.

i) Oro har, indarreko antolamendu juridikoak esleituko dizkien eginkizun guztiak, eta sailburuak haien esku propio utziko dituenak.

### 3. ATALA
### SAILAREN ZUZENDARIEI DAGOKIENEZ

*7. artikulua.–* Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko zuzendariak.

Zerbitzu Zuzendariak sailburuaren zuzeneko ardura hierarkikoaren eraginpean egongo dira. Gainerako zuzendariak dagokien sailburuordearen zuzeneko ardura hierarkikoaren eraginpean egongo dira. Oro har, zuzendari guztiek honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

a) Sailburuak eskuordetuta, Saila ordezkatzea.

b) Zuzendaritzaren barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako eskumen orokorrak bazter utzi gabe.

c) Zuzendaritzaren jarduerak bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, goragoko organoek emandako jarraibideen arabera.

d) Zuzendaritzak izapidetu beharrekoak diren eta egokitzat joko dituzten ebazpenak goragoko organoei proposatzea, eta haien eskumeneko gaiei buruzko erabakiak hartzea.

a) La representación del Departamento por delegación del Consejero.

b) La programación, dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de la Viceconsejería y de los órganos dependientes de la misma.

c) La propuesta al Consejero de la normativa y planes de actuación de la Viceconsejería.

d) La propuesta al Consejero de las resoluciones que estimen procedentes en los asuntos que sean de su competencia y cuya tramitación corresponda a la Viceconsejería y la resolución de los asuntos que sean de su competencia.

e) La formulación de las instrucciones y órdenes de servicio necesarias dirigidas a los servicios dependientes de la Viceconsejería en orden a su correcto funcionamiento.

f) La propuesta de los proyectos de los servicios dependientes de la Viceconsejería, definiendo las necesidades de recursos materiales y humanos, en orden a la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.

g) La resolución de los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por los Directores o Directoras de la Viceconsejería.

h) La inspección y control del funcionamiento de los centros directivos y organismos dependientes de la Viceconsejería.

i) En general, cuantas funciones les atribuya el ordenamiento jurídico vigente y las que expresamente les delegue el Consejero.

### SECCIÓN 3.ª
### DE LOS DIRECTORES O DIRECTORAS DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 7.–* Directores o Directoras del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

El Director o Directora de Servicios tendrán dependencia directa y jerárquica del Consejero. El resto de los Directores o Directoras tendrán dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero o Viceconsejera correspondiente. A todos ellos o ellas les corresponde con carácter general, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La representación del Departamento por delegación del Consejero.

b) La organización de los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, sin perjuicio de las competencias generales atribuidas a la Dirección de Servicios.

c) El impulso, dirección, coordinación y control de las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones de los órganos superiores.

d) La propuesta a los órganos superiores de las resoluciones que estimen procedentes cuya tramitación corresponda a la Dirección, así como la resolución de los asuntos que sean de su competencia.

e) Indarreko antolamendu juridikoak propio esleituko dizkien eginkizun guztiak, bai eta, Gobernuko Zuzendariei oro har esleitu zaizkielako, komunak diren eginkizunak ere.

4. ATALA
SAILEKO ORGANO HORIZONTALEI DAGOKIENEZ

*8. artikulua.–* Zerbitzu Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Zerbitzu Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Sailburuari laguntza tekniko-juridikoa eta administratiboa ematea.

b) Saileko Kontratazio Organo gisa jardutea, 100.000 euro gainditzen ez duten espedienteetan.

c) Saileko organoen arteko eta haien eta Gobernuko gainerako organoen arteko harremanak koordinatzea.

d) Saileko Aurrekontu Aurreproiektua egiteko lanak zuzendu eta koordinatzea, bai eta saileko aurrekontu-kudeaketa antolatu, koordinatu eta horren jarraipena egitea ere; horren haritik, kudeaketa horren egoeraren eta bilakaeraren berri emango diete organo guztiei.

e) Sailaren gastuak baimentzea, Dekretu honetan edo bestelako arauetan beste organo batzuei onartu zaizkien eskumenak bazter utzi gabe.

f) Sailaren kontratazio-espedienteak izapidetzea.

g) Saileko langileei buruzko plangintza, kontrola eta kudeaketa koordinatzea. Gainera, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10.1. artikuluan bildutako eginkizunak betetzeko organo eskuduna da.

h) Saileko langileen gizarte-ekintzako, prestakuntzako eta hobekuntzako programak lantzea eta kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren esparruan gai horien eskumeneko organoei dagozkien eskumenak bazter utzi gabe.

i) Saileko langileen euskalduntzeko eta hizkuntza-normalizazioko politikaren garapena koordinatzea, Kultura Sailaren eskumenak bazter utzi gabe.

j) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo bestelako aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko saileko gaiak izapidetzea.

k) Saileko gainerako organoei —eta, hala badagokio, haren eraginpeko aholku—organoei eta gainerako erakundeei— laguntza juridikoa, aholkularitza eta laguntza ematea.

e) Cuantas funciones les atribuya expresamente el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los/as Directores/as del Gobierno.

SECCIÓN 4.ª
DE LOS ÓRGANOS HORIZONTALES DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 8.–* Dirección de Servicios.

A la Dirección de Servicios le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La asistencia técnico-jurídica y administrativa al/la Consejero/a del Departamento.

b) Actuar como Órgano de Contratación del Departamento en los expedientes de cuantía que no exceda de 100.000 euros.

c) La coordinación de las relaciones entre los distintos órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno.

d) La dirección y coordinación de la elaboración del Anteproyecto de Presupuesto del Departamento, así como la organización y coordinación de la gestión presupuestaria del Departamento y su seguimiento, informando a los distintos órganos de su situación y evolución.

e) La autorización de los gastos del Departamento, sin perjuicio de las competencias reconocidas a otros órganos en el presente Decreto o en otras normas.

f) La tramitación de los expedientes de contratación del Departamento.

g) La coordinación de la planificación, control y gestión en materia del personal del Departamento, siendo el órgano competente para el ejercicio de las funciones recogidas en el artículo 10.1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

h) La elaboración y gestión de los programas de acción social, formación y perfeccionamiento del personal del Departamento, sin perjuicio de las atribuciones de los órganos competentes en estas materias en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

i) La coordinación del desarrollo de la política de euskaldunización y normalización lingüística del personal del Departamento, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Cultura.

j) La tramitación de los asuntos del Departamento que deban ser objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco u otros Boletines Oficiales.

k) La asistencia jurídica, asesoramiento y apoyo al resto de órganos del Departamento y, en su caso, a los órganos consultivos y demás entidades adscritas al mismo.

l) Sailean sortuko diren gaiei buruzko ikerlanak eta txostenak egitea, baldin eta bestelako zuzendaritzen esku utzi ez badira.

m) Saileko organo guztiei laguntza teknikoa ematea, saileko estatistikekin zerikusia duten gaietan.

n) Saileko zerbitzu orokorrak antolatzea eta administratzea, Sailburuordetza, Zuzendaritza eta Lurralde Ordezkaritzen lanerako sistema eta metodoak koordinatzea, eta Saileko administrazio-unitateen banaketa espaziala eta ekipamendu materiala antolatzea, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eskumenak bazter utzi gabe.

ñ) Sailaren informatika-aplikazioak koordinatu eta kudeatzea, eta Sailaren Informatika Plana garatzea, Ogasun eta Herri Administrazioko Sailaren eskumenak bazter utzi gabe.

o) Saileko Erregistro Orokorra, Liburutegia, Dokumentu Funtsa eta Artxiboa antolatu, zuzendu eta kudeatzea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren eskumenak bazter utzi gabe.

p) Administrazioa aldatu eta modernizatzearen eskumeneko organoak emandako ekimenak eta jarraibideak garatu eta gauzatzeko beharrezko euskarria bermatuko duen organo gisa jardutea, Sailaren jarduera-esparruan gai horrekin zerikusia duten Gobernu Programaren aurreikuspenak garatzeko.

q) Euskadiko Jabetza Hiritarreko Ganberei dagokienez Sailari esleitu zaizkion eginkizunak.

r) Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko araudia eta politikak egin eta aplikatzeko izan beharreko esku-hartzea garatzeko koordinazio-neurriak gauzatzea, indarreko arauak betez. Horren haritik, Saileko organoen eta Erkidegoko Erakundeen arteko gaiak eta harremanak bideratuko ditu, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren eskumeneko organoaren bitartez.

s) Saileko zuzendaritzak eta arloak eta sailaren eraginpeko erakunde autonomo, erakunde publiko eta organoak bultzatu, koordinatu eta laguntzea, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasunerako planean aurreikusitako neurriak gauzatzeko.

t) Sailak herritarren informaziorako eta arretarako dituen zerbitzuen (arretaren 2. eta 3. mailak) funtzionamendu egokia ziurtatzea, eta Jaurlaritzaren Herritarren Arretarako Zerbitzuarekiko (Zuzenean) harremanak behar bezala egituratzea. Horretarako, solaskide eragileak ziurtatuko ditu bere eskumen-eremuko gai guztietan.

l) La realización de estudios e informes en asuntos que se susciten en el Departamento, cuando no estén atribuidos a otras Direcciones.

m) El apoyo técnico a cualquier órgano del Departamento en materias relacionadas con las estadísticas departamentales.

n) La organización y administración de los servicios generales del Departamento, la coordinación de los sistemas y métodos de trabajo de las Viceconsejerías, Direcciones y Delegaciones Territoriales y la ordenación de la distribución espacial de las distintas unidades administrativas del Departamento, así como su equipamiento material, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

ñ) La coordinación y gestión de las aplicaciones informáticas y el desarrollo del Plan Informático del Departamento, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

o) La organización, dirección y gestión del Registro General, de la Biblioteca, del Fondo Documental y del Archivo del Departamento, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

p) Actuar como órgano responsable de garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de reforma y modernización de la Administración en orden a desarrollar las previsiones del Programa de Gobierno relativas a la citada materia en el ámbito de actuación del Departamento.

q) Las funciones atribuidas al Departamento en materia de Cámaras de la Propiedad Urbana del País Vasco.

r) La ejecución de las medidas de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la Unión Europea, de conformidad con las normas en vigor, canalizando la tramitación de los asuntos y relaciones de los órganos del Departamento con las Instituciones Comunitarias a través del órgano competente de la Presidencia de Gobierno.

s) El impulso, coordinación y colaboración con las distintas direcciones y áreas del Departamento y con los organismos autónomos, entes públicos y órganos adscritos al mismo para la ejecución de las medidas previstas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en el Plan para la igualdad aprobado por el Gobierno Vasco.

t) Asegurar el óptimo funcionamiento de los servicios de información y atención al ciudadano del Departamento (niveles 2 y 3 de atención), así como articular adecuadamente las relaciones con el servicio de atención al ciudadano del Gobierno -Zuzenean- asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial.

u) Zuzendaritzaren zuzeneko ardura hierarkikoaren eraginpean egongo diren Saileko Lurralde Ordezkaritzak koordinatu, antolatu eta zuzentzea, gaiaren arabera Saila osatuko duten organoen eskumenak bazter utzi gabe.

III. KAPITULUA
ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA

*9. artikulua.*– Etxebizitza Sailburuordetza.

1.– Etxebizitza Sailburuordetza, sailburuaren goragoko zuzendaritzapean, honako jarduera-arlo hauek zuzendu eta koordinatzen ditu:

a) Lurzorua eta hirigintza.

b) Etxebizitza.

c) Arkitektura, eraikuntza, eta eraikuntzaren iraunkortasuna eta kalitatea.

d) Irisgarritasunaren sustapena.

2.– Dekretu honen 6. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitza Sailburuordetzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du sailburuordetza horrek:

a) Lurzoruari, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko politikaren plangintza eta gauzatzea ikuskatzea eta zuzentzea.

b) Iraunkortasuna sustatzea, hiri-garapena eta arkitektura orientatzeko funtsezkoa den aldetik.

c) Irisgarritasuna bultzatu eta sustatzea.

d) Andeatutako hiri-areak eta birgaitze integratuko areak onera ekartzeko lanak bultzatu eta sustatzea, Ogasun eta Herri Administrazioko Sailari esleitutako eskumenak bazter utzi gabe.

e) Nahitaezko desjabetzeen gastuak baimentzea, 150.000 eurora bitarte.

3.– Honako zuzendaritza hauek Etxebizitza Sailburuordetzaren zuzeneko ardura hierarkikokoaren mendean daude: Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

*10. artikulua.*– Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruzko arauzko proiektuak egitea. Azken horri dagokionez, lurraldea antolatzearen ardura duten organo eskudunekin batera.

u) Coordinar, organizar y dirigir las Delegaciones Territoriales del Departamento que dependerán directa y jerárquicamente de la misma, sin perjuicio de las competencias que por razón de la materia ostenten los distintos órganos que lo integran.

CAPÍTULO III
VICECONSEJERÍA DE VIVIENDA

*Artículo 9.*– Viceconsejería de Vivienda.

1.– La Viceconsejería de Vivienda, bajo la superior dirección del Consejero del Departamento, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Suelo y urbanismo.

b) Vivienda.

c) Arquitectura, edificación, sostenibilidad y calidad en la construcción.

d) Promoción de la accesibilidad.

2.– A la Viceconsejería de Vivienda le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La supervisión y dirección de la planificación y ejecución de la política de suelo, urbanismo y vivienda.

b) La promoción de la sostenibilidad como elemento orientador del desarrollo urbano y de la arquitectura.

c) El impulso, promoción y fomento de la accesibilidad.

d) El impulso y promoción de la regeneración de zonas urbanas degradadas y de áreas de rehabilitación integrada, sin perjuicio de las competencias atribuidas al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

e) Autorizar los gastos en las expropiaciones forzosas hasta la cantidad de 150.000 euros.

3.– De la Viceconsejería de Vivienda dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Suelo y Urbanismo, la Dirección de Vivienda, Innovación y Control y la Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda.

*Artículo 10.*– Dirección de Suelo y Urbanismo.

A la Dirección de Suelo y Urbanismo le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración de proyectos normativos en materia de suelo y ordenación urbana en coordinación, en este último caso, con los órganos competentes en materia de ordenación del territorio.

b) Izapideak koordinatu eta kontrolatzea, eta, hala badagokio, hiri-antolamenduko eta lurzoruko tresnak lantzea, bai eta tresna horiek baliatzeko gestioak egitea ere, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen esparruan.

c) Hiri-antolamenduko eta lurzoruko tresnei buruzko txostenak egitea, Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen funtzionamenduaren esparruan, eta Sailaren berezko eskumenei loturik.

d) Birgaitze integratuko areak eta area andeatuak deklaratzea, urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeari begira; bai eta berariazko ekintzak egitea, hiria birgaitzeari eta onera ekartzeari dagokienez.

e) Lurzoru eraikigarria lortzea, Sailak etxebizitza-arloan egin beharreko jarduerak ahalbidetzeko; eraikin zaharkituak ordez daitezke ere xede horri begira.

f) Sustapen publikoko eremuak urbanizatzeko obren gauzatzea planifikatu, programatu, kudeatu eta kontrolatzea.

g) Euskadiko Ondareari buruzko legean aurreikusitakoaren esparruan Sailari esleitu zaion titulartasun publikoko lurzorua administratzea, eta lurzoru horren berariazko inbentarioa egitea, antolatzea eta kontrolatzea, aipatutako Legean aurreikusitakoa betez.

h) Sailak garatutako jardueren eta beste sail batzuek agindutakoen ondorio diren desjabetze-espedienteak izapidetzea eta balio justuak eta berriz kokatzeko eskubideak onartzea.

i) Haren eginkizunak betez eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailarekin elkarlanean, Sailak parte hartuko duen ondare-eragiketen eraginpeko eraikinen balorazio teknikoak egitea, bai eta beste eraikin batzuen balorazioak egitea edo haiek egiten laguntzea ere, Sail horren eskaerari erantzunez.

***11. artikulua.***– Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Honako arlo hauei buruzko arauzko proiektuak egitea: eraikuntza, birgaitzea, iraunkortasuna, berrikuntza teknikoa eta eraikuntzaren kalitatea, bai eta, hala badagokio, eraikuntza iraunkorraren arloko egiaztagiriak kudeatu eta ematea ere.

b) Hirigintza eta eraikuntza iraunkorrak bultzatzeko sustapen-jarduerak.

c) Sustapen zuzeneko etxebizitza sozialen arloko obren gauzatzea planifikatu, programatu, kudeatu eta kontrolatzea.

b) La coordinación y control de la tramitación, y la elaboración en su caso, de los instrumentos de ordenación urbana y del suelo y la gestión de su ejecución en el ámbito de las competencias del Gobierno Vasco.

c) La elaboración de informes sobre los instrumentos de ordenación urbana y del suelo, en el ámbito del funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco, y en relación a las competencias propias del Departamento.

d) La declaración, a efectos de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado, de las áreas de rehabilitación integrada y áreas degradadas, así como la realización de acciones específicas en materia de rehabilitación y regeneración urbana.

e) La obtención del suelo edificable con el objeto de posibilitar el ejercicio de las actividades del Departamento en materia de vivienda, incluso mediante la sustitución de edificaciones obsoletas.

f) La planificación, programación, gestión y control de la ejecución de las obras de urbanización de los polígonos de promoción pública.

g) La administración del suelo de titularidad pública adscrito al Departamento, en el marco de lo previsto en la Ley de Patrimonio de Euskadi, y la elaboración, organización y control de inventario específico del mismo, con sujeción a lo previsto en la citada Ley.

h) La tramitación de expedientes expropiatorios y aprobación de los justiprecios y derechos de realojo derivados de las actuaciones desarrolladas por el Departamento, y las encomendadas por otros Departamentos.

i) La realización de las valoraciones técnicas de inmuebles sujetos a operaciones patrimoniales en las que participe el Departamento en el ejercicio de sus funciones, en colaboración con el Departamento de Hacienda y Administración Pública, así como la realización de otras valoraciones de inmuebles o colaboración en su realización, a instancia de dicho Departamento.

***Artículo 11.***– Dirección de Vivienda, Innovación y Control.

A la Dirección de Vivienda, Innovación y Control le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración de proyectos normativos en materia de edificación, rehabilitación, sostenibilidad, innovación técnica y calidad de la construcción, así como, en su caso, la gestión y concesión de certificaciones en materia de edificación sostenible.

b) Las actividades de fomento para el impulso del urbanismo y la edificación sostenibles.

c) La planificación, programación, gestión y control de la ejecución de obras en materia de viviendas sociales de promoción directa.

d) Arkitekturaren aldetik bereziak diren eraikinak birgaitzea.

e) Proiektu tekniko, memoria eta oinarri teknikoen pleguak idaztea.

f) Etxebizitza sozialak sustatzerakoan obrak zuzendu eta ikuskatzea, edo, hala badagokio, eginkizun horiek betetzeko laguntza teknikoa ematea.

g) Sailak sustatutako babes ofizialeko etxebizitzen promozio adostuekin zerikusia duten proiektuak aztertzea eta horiei buruzko aholkularitza teknikoa ematea, bai eta, hala badagokio, promozio horiekin zerikusia duten obren gauzatzea kudeatu, kontrolatu, eta horien jarraipen teknikoa egitea ere.

h) Sailak sustatu dituen etxebizitzak eraiki edo birgaitzeko obrekin zerikusia duten proiektu teknikoak ikuskatzea, bai eta obra horien harreren kontrol teknikoa egitea ere.

i) Babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazioak ematea, Lurralde Ordezkaritzen talde teknikoen txostenak oinarritzat hartuta.

j) Irisgarritasuna sustatzea.

k) Eraikuntzaren eta birgaitzearen problematika aztertu, ebaluatu eta kontrolatzea.

l) Eraikuntza-kalitatea antolatu eta sustatzea, etxebizitzak eraiki eta urbanizazio-obrak egiterakoan.

m) Eraikinen egoera kontrolatzea eta Eraikinen Ikuskatze Teknikoak egitea.

n) Ikerketa sustatzea eta bizitegi-eraikuntzan erabilitako teknikak modernizatzea.

o) Eraikuntzaren sektorean kalitatea, iraunkortasuna eta lan-arriskuen prebentzioa integratzeko sistemak sustatzea; azken horri dagokionez, arlo horien eskumeneko organoen eskumenak hartuko dira kontuan.

p) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategien egiaztagiriak ematea eta berritzea, eta arlo horri dagozkion lanak eta entseguak egitea.

q) Proiektuak Ikuskatzeko Bulego gisa jardutea eta Eusko Jaurlaritzaren sail guztiei dagozkien eraikuntza-obren harreren kontrol teknikoa egitea, baldin eta sail horiek proiektuak ikuskatzeko berariazko zerbitzurik ez badute eta haien eskaerari jarraituz, eta sail anitzeko eraikinei dagokienez Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagozkion eskumenak bazter utzi gabe.

r) Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko Batzordea eta Irisgarritasuna sustatzeko Euskal Kontseilua bultzatu eta laguntzea.

*12. artikulua.–* Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

d) La rehabilitación de edificios de singularidad arquitectónica.

e) La redacción de proyectos técnicos, memorias y pliegos de bases técnicas.

f) La dirección e inspección de obras en la promoción de viviendas sociales o, en su caso, el apoyo técnico en la realización de dichas funciones.

g) El examen y asesoramiento técnico de los proyectos relativos a promociones concertadas de viviendas de protección oficial promovidas por el Departamento, así como en su caso la gestión, el control y el seguimiento técnico de la ejecución de obras relativas a dichas promociones.

h) La supervisión de los proyectos técnicos relativos a obras de edificación o rehabilitación de viviendas promovidas por el Departamento, así como el control técnico de las recepciones de dichas obras.

i) El otorgamiento de las calificaciones de las viviendas de protección oficial, en base a los informes de los equipos técnicos de las Delegaciones Territoriales.

j) La promoción de la accesibilidad.

k) El estudio, evaluación y control de la problemática de la edificación y la rehabilitación.

l) La ordenación y el fomento de la calidad constructiva en la edificación de viviendas y obras de urbanización.

m) El control del estado de los edificios y las Inspecciones Técnicas de Edificios.

n) La promoción de la investigación y la modernización de las técnicas utilizadas en la construcción residencial.

o) La promoción de los sistemas integrados de calidad, sostenibilidad y prevención de riesgos laborales en el sector de la construcción, sin perjuicio, en este último caso, de las competencias de los órganos competentes en dicha materia.

p) La concesión y renovación de acreditaciones de laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación, y la realización de trabajos y ensayos en dicha materia.

q) Actuar como Oficina de Supervisión de Proyectos y efectuar el control técnico de las recepciones de las obras de edificación que afecten a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, que no cuenten con un servicio específico de supervisión de proyectos, a solicitud de los mismos, y sin perjuicio de las competencias que en materia de edificios multidepartamentales correspondan al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

r) El apoyo y la asistencia a la Comisión para el control de la calidad de la Edificación y al Consejo Vasco para la promoción de la Accesibilidad.

***Artículo 12.–*** Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Aholkularitza juridikoa ematea eta arauzko proiektuak eta hitzarmenak egitea etxebizitza-politikaren arloan.

b) Etxebizitzaren, lurzoruaren eta urbanizazioaren arloetako jardueren plangintza eta finantza-programazioa.

c) Etxebizitza-arloko planak, eta finantziazioko eta erregimen juridiko eta finantzarioko programen proposamena egitea, Gobernu Kontseiluak hura onar dezan.

d) Partaidetza-sozietateen kudeaketa-informazioa integratzea eta haien jardueren jarraipena egitea.

e) Babes ofizialeko etxebizitzen plan eta programa guztien esparru babesgarrien proposamena egitea.

f) Sailburuari babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioaren proposamena egitea.

g) Tokiko Korporazioekin eta zuzenbide publikoko erakundeekin lankidetza-hitzarmenak izenpetzea, bai eta interes publikoko jarduera ekonomiko pribatuak sustatu nahi dituzten partikularrekin laguntza-hitzarmenak izenpetzea ere, Gobernu Kontseiluak horretarako baimena eman ondoren, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekarpen ekonomikoa 60.000 eurotik gorakoa ez bada.

h) Ikerlan, txosten eta agerkari ekonomikoak egitea, etxebizitza-arloko politika eraginkorra eta koherentea ahalbidetzeko.

i) Eraikuntza eta etxebizitzaren arloko saileko estatistika-plana egitea, eta administrazio-informazioko sistemak diseinatu, mantendu eta kudeatzea, sektorearen errealitatea eta horren bilakaera behar bezala ezagutzen dela bermatzeko.

j) Etxebizitzaren, lurzoruaren eta urbanizazioaren arloetako finantza-neurrien kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta administratiboa egitea.

k) Etxebizitzen promozio adostuei dagokien deialdia, kudeaketa eta etekinak esleitzea.

l) Erakunde publiko edo pribatuekiko alokairu-etxebizitzak sustatzeko hitzarmenak prestatzea.

m) Honako prozesu hauen zuzendaritza funtzionala: etxebizitzen eskaintza eta esleipena kudeatzea, etxebizitza-arloko zigor-ahalmena ikuskatu eta gauzatzea, eta partikular eta auzo-komunitateentzako etxebizitza-arloko laguntza-ildoak proposatu eta kudeatzea.

A la Dirección de Planificación y Procesos Operativos de Vivienda le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La asistencia jurídica y la elaboración de proyectos normativos y convenios en materia de política de vivienda.

b) La planificación y programación financiera de las actuaciones en materia de vivienda, suelo y urbanización.

c) La elaboración de la propuesta para su aprobación por el Consejo de Gobierno de los planes, programas de financiación y régimen jurídico financiero en materia de vivienda.

d) La integración de la información de gestión y el seguimiento de las actuaciones de las sociedades participadas.

e) La elaboración de la propuesta de los ámbitos protegibles de los diferentes planes y programas de viviendas de protección oficial.

f) La propuesta al/la Consejero/a del precio máximo de las viviendas de protección oficial.

g) La suscripción de convenios de cooperación con Corporaciones Locales y entes de derecho público y convenios de colaboración, previa autorización del Consejo de Gobierno, con particulares que tengan por objeto fomentar la realización de actividades económicas privadas, de interés público, cuando la aportación económica de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco no exceda de 60.000 euros.

h) La realización de los estudios, informes y publicaciones de naturaleza económica, con la finalidad de posibilitar una política eficaz y coherente en materia de vivienda.

i) La elaboración del plan estadístico departamental en materia de edificación y vivienda y el diseño, mantenimiento y gestión de sistemas de información administrativa que garanticen un adecuado conocimiento de la realidad sectorial y su evolución.

j) La gestión económico-financiera y administrativa de las medidas financieras en materia de vivienda, suelo y urbanización.

k) La convocatoria, gestión y adjudicación de los beneficios correspondientes a las promociones concertadas de viviendas.

l) La preparación de convenios para la promoción de viviendas en alquiler con entidades públicas o privadas.

m) La dirección funcional de los siguientes procesos: la gestión de la demanda y la adjudicación de viviendas, la inspección y el ejercicio de la potestad sancionadora en materia de vivienda, así como la propuesta y gestión de las líneas de ayudas a particulares y comunidades de vecinos en materia de vivienda.

n) Etxebizitza-zozketak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzea, eta horiekin zerikusia duten aginduak argitaratzea.

ñ) Kanpo-erakundeekin (udaletxeak, sustatzaile pribatuak, kooperatibak) koordinatzea, haien etxebizitzak esleitzeko prozesuetan laguntzeko, eta haien beharretara egokitutako datu-baseak haien esku jartzeko.

o) Titulartasun publikoko etxebizitzak administratu eta kudeatzea.

IV. KAPITULUA
GIZARTE GAIETAKO SAILBURUORDETZA

*13. artikulua.–* Gizarte Gaietako Sailburuordetza.

1.– Gizarte Gaietako Sailburuordetza, sailburuaren goragoko zuzendaritzapean, honako jarduera-arlo hauek zuzendu eta koordinatzen ditu:

a) Garapen Lankidetza.

b) Gizarte Ongizatea.

c) Gizarte Zerbitzuak.

d) Inmigrazioa.

e) Droga Mendekotasunak.

f) Haurrak.

g) Askatasun afektibo-sexuala erraztuko duten baldintzak sustatzea.

h) Boluntariotza.

2.– Dekretu honen 6. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Gizarte Gaietako Sailburuordetzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du sailburuordetza horrek:

a) Honako hauei buruzko politikaren plangintza eta gauzatzea ikuskatu eta zuzentzea: Gizarte Ongizatea, Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Droga Mendekotasunak, Garapen Lankidetza, Boluntariotza eta Haurrak.

b) Ongizatearen eta gizarte-zerbitzuen alorrean jarduten duten erakunde publiko eta pribatuen jarduerak planifikatu, sustatu, koordinatu eta ebaluatzea, bai eta horien prestazio-katalogoa mantendu eta hobetzea.

c) Gizarte-zerbitzuen arloan, Gobernuaren ekintza zuzena indartzea.

d) Immigrazio-arloko jarduera-politika propioa bultzatzea, beharrezko baldintzak sustatuz eta oztopoak kenduz, etorkinak gizarteratu eta politikan parte har dezaten errazteko.

e) Elkartasun aktiboa sustatu eta gizarte zibilak poliki-poliki parte har dezan bultzatzea, herritarrek lankidetza solidarioaren alderdi guztien berri izan dezaten eta horietan inplika daitezen.

f) Gizarte Zerbitzuen esparruan jarduten duten elkarte, fundazio, gobernuz kanpoko erakunde eta gizar-

n) La planificación, publicación de órdenes, coordinación y control de los sorteos de viviendas.

ñ) La coordinación con entidades externas (Ayuntamientos, promotores privados, cooperativas) para sus procesos de adjudicación de viviendas y el suministro de bases de datos adaptadas a sus necesidades.

o) La administración y gestión de las viviendas de titularidad pública.

CAPÍTULO IV
VICECONSEJERÍA DE ASUNTOS SOCIALES

***Artículo 13.–*** Viceconsejería de Asuntos Sociales.

1.– La Viceconsejería de Asuntos Sociales, bajo la superior dirección del/la Consejero/a del Departamento, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Cooperación al Desarrollo.

b) Bienestar social.

c) Servicios sociales.

d) Inmigración.

e) Drogodependencias.

f) Infancia.

g) Promoción de las condiciones que faciliten la libertad afectivo-sexual.

h) Voluntariado.

2.– A la Viceconsejería de Asuntos Sociales le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 6 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La supervisión y dirección de la planificación y ejecución de la política de Bienestar Social, Servicios Sociales, Inmigración, Drogodependencias, Cooperación al Desarrollo, Voluntariado e Infancia.

b) La planificación, promoción, coordinación y evaluación de las actuaciones de los organismos públicos y privados que actúen en el campo del bienestar y servicios sociales, así como del mantenimiento y mejora de su catálogo de prestaciones.

c) La promoción de la acción directa del Gobierno en materia de servicios sociales.

d) El impulso de una política de actuación propia en materia de inmigración, promoviendo las condiciones necesarias y removiendo los obstáculos en orden a favorecer la integración social y política de los ciudadanos y ciudadanas inmigrantes.

e) La promoción de la solidaridad activa y de la progresiva participación de la sociedad civil en cuanto a conocimiento e implicación en los diferentes aspectos de la cooperación solidaria.

f) La potenciación de las relaciones de colaboración con las asociaciones, fundaciones, organizaciones no gu-

te-mugimenduekiko lankidetza-harremana indartzea, Herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetzarekin batera.

g) Haur eta nerabeen eskubideak sustatu eta horiekiko sentsibilizatzea, bai eta Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoaren arteko harremanetarako organo gisa jardutea ere.

h) Herritarrek boluntariotza-ekintzetan eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan parte har dezaten sustatzea, herritarren Partaidetzarako eta Harreman Instituzionaletarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

3.– Gizarte Ongizate Zuzendaritza, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza, Inmigrazio Zuzendaritza eta Droga Gaietako Zuzendaritza Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren mendekoak dira koordinazioari dagokionez.

*14. artikulua.–* Gizarte Ongizate Zuzendaritza.

Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Gizarte Gaietako Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Honako hauei buruzko arauzko proiektuak egitea: haurrak, familia-bitartekotza eta adingabeak babestea, adinekoak, minusbaliatuak, eta, oro har, gizarte-ongizateari eta gizarte-zerbitzuei buruzko proiektuak.

b) Gizartearen eta erkidegoaren prebentzioaren esparruko jarduera instituzionalak sustatzea.

c) Beharrei eta gizarte-baliabideei buruzko ikerlanak programatu eta lantzea.

d) Gizartearen eta osasunaren arloko jarduerak planifikatzea, Osasun Sailarekin batera.

e) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, urriaren 18ko 5/1996 Legean ezarritakoa betez, zerbitzu horiek garatu eta aplikatzeko arauak landuz, bai eta Euskadiko gizarte-zerbitzuen arloko jardueretarako laguntzak ematea arautzen duen araudia antolatzea ere, Zuzendaritza honen eskumenekoak diren alderdietan.

f) Herri Administrazioen eta erakunde pribatuen gizarte-zerbitzuen jarduerak koordinatzea eta ikuskatzea, eta horiekin zerikusia duten funtsezko arauak bete daitezen kontrolatzea.

g) Gizarte Ongizatearen berariazko zerbitzuen arloan jarduten duten erakunde publiko eta pribatuen jarduerak planifikatu, sustatu, koordinatu eta ebaluatzea.

h) Instituzioek presentzia duten eta Zuzendaritzaren berariazko eskumenetan eragina duten esparru guztietan

bernamentales y movimientos sociales que trabajen en el campo de los asuntos sociales, en coordinación con la Viceconsejería de Participación Ciudadana y Relaciones Institucionales.

g) La promoción y sensibilización en relación con los derechos de la infancia y la adolescencia, actuando como órgano de relación de la Administración de la Comunidad Autónoma con la Defensoría para la Infancia y la Adolescencia.

h) El fomento y la promoción de la participación de los ciudadanos y ciudadanas en acciones de voluntariado y en organizaciones privadas que carezcan de ánimo de lucro, en coordinación con la Viceconsejería de Participación Ciudadana y Relaciones Institucionales.

3.– De la Viceconsejería de Asuntos Sociales dependen directamente en cuanto a su coordinación, la Dirección de Bienestar Social, la Dirección de Cooperación al Desarrollo, la Dirección de Inmigración y la Dirección de Drogodependencias.

*Artículo 14.–* Dirección de Bienestar Social.

A la Dirección de Bienestar Social le corresponde, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, el ejercicio de las siguientes funciones:

a) La elaboración de proyectos normativos en materia de infancia, mediación familiar y protección de menores, tercera edad, discapacitados y, en general, en materia de bienestar social y servicios sociales.

b) La promoción de actuaciones institucionales en el ámbito de la prevención social y comunitaria.

c) La programación y elaboración de estudios sobre necesidades y recursos sociales.

d) La planificación de actuaciones en el espacio socio-sanitario en coordinación con el Departamento de Sanidad.

e) La ordenación de los servicios sociales, de conformidad con lo establecido en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, mediante la elaboración de sus normas de desarrollo y aplicación, así como de la normativa que regula la concesión de ayudas para actividades en el área de los servicios sociales del País Vasco, en aquellos aspectos que son competencia de esta Dirección.

f) La coordinación de las actuaciones, supervisión y control de la ejecución de la normativa sustantiva sobre servicios sociales, tanto por parte de las Administraciones Públicas como por parte de las entidades privadas.

g) La planificación, promoción, coordinación y evaluación de las actuaciones de los organismos públicos y privados que actúen en el campo de los servicios específicos de bienestar social.

h) La participación en todos aquellos ámbitos con presencia institucional que afecten a competencias pro-

parte hartzea, bai eta gizarte-ongizatean eta gizarteratzean eragina duten parte-hartze sozialeko jarduera eta ekimen publikoetan parte hartzea ere, kasu bakoitzean Gobernu Kontseiluak erabakiko duena betez.

i) Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra kudeatzea, araudi aplikagarrian ezarritakoa betez.

j) Zuzendaritza honen eskumenekoak diren arloei buruzko informazioa bildu eta igortzeari begira Gobernuak sustatutako programa eta proiektuetan parte hartzea.

k) Gizarte-zerbitzuen esparruan jarduten duten langileen prestakuntza kualifikatua sustatzea.

l) Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzako programa eta jarduerak antolatu eta kudeatzea, bestelako Sailen eskumenak bazter utzi gabe.

m) Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko eraginpean dauden erakundeekiko zigor-ahalmena ikuskatzea eta gauzatzea, bestelako Sailen eskumenak bazter utzi gabe.

n) Ongintza- eta asistentzia-fundazioei dagokienez, Euskadiko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 36.4 artikuluak eta Euskadiko Fundazioen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arautegia onartzen duen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 8. artikuluak ezarritako eginkizunak betetzea.

ñ) Nazioarteko adopzioko erakunde laguntzaileak egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzea, Nazioarteko Adopzioko Erakunde Laguntzaileen egiaztatzea eta funtzionamendua arautzen duen urriaren 28ko 263/2003 Dekretuan ezarritakoa betez.

o) Haur eta Nerabeen Behatokiari babesa eta laguntza ematea.

p) Familia-bitartekotzako zerbitzuak arautu, antolatu eta ezartzea.

q) Eusko Jaurlaritzak onartutako seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Planaren esparruan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, familientzako laguntzak abian jartzea eta haurtzaindegi eta haur-eskolen sarea finkatzea, Sailen arteko Batzordeak haur-hezkuntzako lehen zikloa abian jartzeari begira ezarriko duena betez.

r) Haurren eta familiaren egoerarekiko sentsibilizatzeko jarduerak, programak eta kanpainak garatzea, Zuzendaritzak gizarte-ongizatearen esparruan dituen eskumenen eremuan.

s) Adingabeak babesteko prebentzio- eta jarduera-planak sustatzea, udaleko gizarte-zerbitzuekin batera, eta gai horretan inplikatutako erakundeekin elkarlanean. Adinekoen eta edonolako minusbaliotasuna jasaten dutenen sustapen pertsonala eta gizarteratzea. Orobat, gizartearen diskriminazioa eta baztertzea jasaten

pias de la Dirección, así como en las actuaciones e iniciativas públicas con participación social que afecten al bienestar y la integración social, de conformidad con lo que en cada caso disponga el Consejo de Gobierno.

i) La gestión del Registro General de Servicios Sociales, de conformidad con lo establecido en la normativa aplicable.

j) La participación en aquellos programas y proyectos promovidos por el Gobierno que impliquen recogida y transmisión de información sobre áreas que son competencia de esta Dirección.

k) El fomento de la formación cualificada del personal que actúa en el ámbito de los servicios sociales.

l) La ordenación y gestión de los programas y actuaciones de acción directa del Gobierno Vasco, sin perjuicio de las competencias de otros Departamentos.

m) La inspección y ejercicio de la potestad sancionadora respecto a entidades vinculadas a la acción directa del Gobierno Vasco, sin perjuicio de las competencias de otros Departamentos.

n) El ejercicio, en relación con las fundaciones benéfico-asistenciales, de las funciones establecidas por el artículo 36.4 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y por el artículo 8 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de Fundaciones del País Vasco.

ñ) La acreditación, control e inspección de las entidades colaboradoras de adopción internacional, de conformidad con lo establecido en el Decreto 263/2003 de 28 de octubre, por el que se regula la acreditación y el funcionamiento de las Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional.

o) El apoyo y la asistencia al Observatorio de la Infancia y la Adolescencia.

p) La regulación, ordenación e implantación de servicios de mediación familiar.

q) En el marco del Plan de Apoyo a las Familias con hijos e hijas aprobado por el Gobierno Vasco, la implementación, en coordinación con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, de ayudas a las familias y consolidación de la red de guarderías y escuelas infantiles de conformidad a lo que establezca la Comisión Interdepartamental para la puesta en marcha del primer ciclo de educación infantil.

r) El desarrollo de actuaciones, programas y campañas de sensibilización sobre la situación de la infancia y la familia en el marco de las competencias de la Dirección en el ámbito del bienestar social.

s) El fomento y promoción de planes de prevención y actuación en defensa de los y las menores, actuando de manera coordinada con los servicios sociales de los Ayuntamientos y en colaboración con las entidades implicadas en esta materia. La promoción personal y la integración social de las personas mayores, así como de

duten talde eta kolektiboentzako ekimen eta zerbitzuei beharrezko laguntza emango zaie, beste Sail batzuek azken arlo horretan dituzten eskumenak bazter utzi gabe.

t) Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluari eta Ijitoen sustapen integralerako eta gizarte-parte-hartzerako Kontseiluari laguntza ematea.

u) Askatasun afektibo-sexualaren esparruan herritarren benetako berdintasuna bultzatu eta sendotzeko jarduerak proposatzea.

v) Askatasun afektibo-sexuala galarazten duten oztopoak kentzeko jarduerak proposatzea eta arauzko proiektuak lantzea.

w) Izatezko Bikoteen Erregistroa kudeatzea.

x) Askatasun Afektibo Sexualaren Zerbitzua (Berdindu) kudeatzea.

y) Erabilera publikokotzat har ditzaten lortu nahi duten elkarteei dagokienez, Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1998 Legearen 22.3. artikuluan ezarritako eginkizunak betetzea.

z) Gizarte Zerbitzu oinarrizko edo espezializatuetan bildutako sistemak (kontrol-bilketa metodologikoa, datu-tratamendua eta dokumentazioa) garatzea, eta programa, prestazio eta zerbitzuak ebaluatzeko jarduerak egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea betez.

a') Amnistiari buruzko Legearen arabera eta diktadura frankistaren errepresaliatuak aintzat hartzeko bestelako ekimenen arabera askatasuna kentzea jasan zutenak konpentsatzeko laguntzak eta kalte-ordaineko ekimen kultural eta sinbolikoak garatzea.

b') Boluntariotzaren Erakundeen Errolda Orokorra kudeatu eta antolatzea, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean eta irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan ezarritakoa betez.

c') Boluntariotzaren baliabideen katalogo publikoa egitea, eta boluntariotzari buruzko dokumentu-funtsak eta datu-baseak sortu eta kudeatzea, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean ezarritakoa betez.

d') Boluntariotza-proiektu jakin bati helduko dioten erakundeei aholkularitza teknikoa eta laguntza ematea, boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean ezarritakoa betez

e') Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari laguntzea.

f') Boluntariotza eta boluntariotza-agentziak bultzatu, lagundu eta sustatzea.

*15. artikulua.–* Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza.

las que sufren algún tipo o grado de discapacidad. Asimismo, las ayudas necesarias y el apoyo a las iniciativas y servicios dirigidos a los grupos y colectivos que sufren discriminación y marginación social, sin perjuicio de las competencias en este último campo de otros Departamentos.

t) El apoyo y la asistencia al Consejo Vasco de Bienestar Social y al Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano.

u) La propuesta de actuaciones destinadas a impulsar y promover la igualdad real y efectiva de las personas en el ámbito de la libertad afectivo-sexual.

